

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000002958

Espediente-zenbakia: 2024/IDA_ERA_0186**Xedea**

2025. urterako Bermeoko auzotaxi zerbitzua erabiltzeagatik dirulaguntzak ematea arautzen duen udal oinarriak onartzea.

Aurrekariak

Bakarra: Bermeoko Udalak lurralde oreka eta mugikortasun jasangarria indartzeko apustua berretsi du. Ildo horretan auzotaxiaren bitartez herriko auzoetan erroldatuta dauden herritarrei hiri-gunera gerturatzeko aukera emango zaie prezio murriztuan, joan-etorri gastuetan diruz lagunduz. Horretarako beharrezkoa da dirulaguntzen kudeaketa arautzea.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, bere 4.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128. artikuluan xedatzen da udalek eskumena dutela auto-organizaziorako eta araudiak egiteko.

Bigarrena: 39/2015 Legearen 129. artikuluan adierazten da legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dutela: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Premia eta efikazia printzipioen arabera, araugintza-ekimenak interes orokorreko arrazoi batekin justifikatuta egon behar du, lortu nahi diren xedeen definizio argi batean oinarritua izan, eta haiek lortuko direla bermatzeko tresnarik egokiena izan.

Oinarri hauen helburua landa eremuetako biztanleentzako auzotaxi zerbitzuaren dirulaguntza arautzea da, onura herritarrei zuzenean ematen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E900131E2300R6B3D9D0Z5O4

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 27/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 27/05/2025 09:43:20

EXPEDIENTE ::

2024IDA_ERA_0186

Data: 27/05/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



zaiela eta zerbitzuaren erabileraren arabera modu ekitatiboan banatzen dela ziurtatuz.

Gaur egun ez dago araudi zehatzik dirulaguntza hau arautzen duenik beraz oinarriak onartu beharra dago.

Proporzionaltasun printzipioari jarraituz, ez dago beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik edo xede diren pertsoneri betebeharrak gutxiago ezarriko dienik.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko indarrean dagoen legediak xedatutako prozedura jarraitu da espediente honetan.

Gardentasun eta efizientzia printzipioak aplikatuz, argi definitu dira oinarrien helburuak eta aldaketaren zioak justifikatu dira. Araugintza ekimen honek ez du karga handirik suposatzen Bermeoko Udalarentzat, eta ordenantza aplikatzerakoan eta zerbitzu publiko hau ematean, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu da, nahi diren emaitzak, baliabideen gutxieneko erabilerarekin lortuko direlako.

Hirugarrena: Bermeoko Udalak hiriko garraio kolektiboaren, trafikoaren eta mugikortasunaren arloan ahalmena dauka Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera.

“Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.

Laugarrena: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikulua arabera:

1.– *Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:*

(...) 18) *Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa –garraio bidea edozein dela– antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900131E2300R6B3D9D0Z5O4

Sinadurea eta data
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 27/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 27/05/2025 09:43:20

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0186
Data: 27/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E900131E2300R6B3D9D0Z5O4



diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerraren barruan egiten bada osorik.

(...) 32) Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplinamodua zehaztea; horretarako, beharrezko irizitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.

Bosgarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 3.1 artikulua araberako, udalek dirulaguntzak emoteko ahalmena daukate.

3. artikulua. Dirulaguntzaren kontzeptua.

1.– Lege honen ondorioetarako, hauxe da dirulaguntza: lege honen 2. artikuluan ezarritako subjektuetariko edozeinek funts publikoak jartzea pertsona publiko zein pribatuaren esku, trukean inolako ordain zuzenik jaso gabe, helburu edo jokabide zehatz bat betetzeko, jarduera edo proiektu jakin bat gauzatzeko edo zenbait betebeharrak material eta formal betetzeko baldintzapean, betiere gizarte-onurarako edo -intereseko jarduera bat sustatzeari edo helburu publiko bat lortzea bultzatzeari lotuta.

Seigarrena: Bermeoko Udaleko 2025. urterako aurrekontuan auzo taxirako bideratutako dirulaguntzak aurreikusten dira; 12.000€, 00900-414000-4800103 partidan.

Auzotaxi zerbitzua erabiltzeagatik dirulaguntzak zerbitzuaren erabiltzaileei esleituko zaie zuzenean eta taxilaria arlo ekonomikotik kanpo geldituko da.

Gainera, jasotako dirulaguntza erabiltzaile bakoitzak egiten duen bidai kopuruaren arabera izango da. Hala ere, dirulaguntza hauetarako diru izendapena epemuga iritsi baino lehen bukatuko balitz, agortutako unean horren berri emango da, programa bukatutzat emango da eta ez da dirulaguntza gehiago emango.

Neurri hauekin onura herritarrei zuzenean ematen zaiela eta dirulaguntza zerbitzuaren erabileraren arabera modu ekitatiboan banatzen dela ziurtatu nahi da.

Zazpigarrena: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko



7/1985 Legeak, bere 4.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128. artikuluan xedatzen da udalek eskumena dutela auto-organizatorako eta araudiak egiteko.

Zortzigarrena: Erabakia hartzeko ahalmena, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.f) artikulua arabera osoko bilkurari dagokion arren, 2025eko maiatzaren 26ko diligenza bidez, maiatzaren 29ko ohiko osoko bilkura bertan behera gelditzen dela adierazten da.

Erabakia

Goian aitatutako guztia kontutan hartuta, honakoa erabaki dot:

LEHENENGOA: Bermeoko auzotaxi zerbitzua erabiltzeagatik dirulaguntzak ematea arautzen duen oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Erabaki hau Dirulaguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) oinarriz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Sinadurea eta data

